



GOYENECHKO LANTEGIA HANDITU DU GUREAKEK, DESGAITASUNA DUTEN PERTSONENTZAT ESPAZIO MODERNO ETA EGOKITU BERRIEKIN

- 365 pertsonak industria-jarduerak egiten dituzte GUREAKen instalazio zentraletan; horietatik %80k laguntza-premia handiak dituzten pertsonak dira.
- Inbertsioaren zati handi bat eremu ez-produktiboak hobetzera bideratu da, hala nola atsedenlekuak, jantokiak, familiei arreta emateko guneak, bilera-gelak eta abar.

Donostia, 2023ko martxoaren 27an. Gaur goizean, Maite Peña Gizarte Politiketako foru diputatuak, Asier Vitoria, Gureakeko zuzendari nagusiarekin eta Ainhoa Askasibar, Gureak Itineraryko zuzendariarekin batera, Goyenecheko lantegia bisitatu du, Donostiako Berio auzoan kokatuta dagoen lantegiaren handitze eta birmoldaketa lanak ikusteko.

Jarduera honen helburua desgaitasuna duten pertsonen lan-ingurunearen kalitatea eta zerbitzua hobetzeko prestazioak hobetzea izan da.

Gaur egun, 365 pertsona aritzen dira industria-jardueratan GUREAKen instalazio zentraletan; horietatik %80 laguntza-premia handiak dituzten pertsonak dira, hau da, batez ere adimen-desgaitasuna eta gaixotasun mentala duten pertsonak. Gainera, 152 Zerbitzu Okupazionalakoak dira, Gipuzkoako Foru Aldundiaren gizarte-zerbitzuen parte dena, eta lankidetzeta-hitzarmen baten bidez garatzen dena.

Testuinguru horretan, lan-inguruneko irisgarritasuna eta ongizatea funtsezkoak dira, Asier Vitoriak azaldu duen bezala, **“inbertsioaren zati handi bat eremu ez-produktiboak hobetzera bideratu da, hala nola atsedenlekuak, jantokiak, familientzako arreta-guneak, bilera-gelak, etab.** Halaber, Zabala Social LABi zuzendutako espazio berriak sortu dira, garapen pertsonal eta sozialeko zeharkako programa, Zerbitzu Okupazionalari lotua”.

Handitze-obrari esker, Goyenecheko industria-instalazioak ia bikoiztu egin du bere espazioa: 3.212 m² izatetik 6.266 m² izatera igaro da; 1.000 m² gehiago ekoizpenerako, 607 m² gehiago biltegirako eta gainerakoa eremu ez-produktiboetarako, hau da, guztira 1.500 m² gehiago bulegoetarako, aldageletarako, atsedenlekuetarako, jantokietarako, prestakuntza-guneetarako eta abarretarako.

Irisgarritasuna hobetzea da birmoldaketaren beste puntu nabarmenetako bat. Ainhoa Askasibar, Gureak Itineraryko zuzendariak azaldu duenez, “biltegia ekoizpen-eremutik bereizi dute, kargak gurutzatzea saihesteko eta segurtasunean irabazteko. Era berean, solairurako oinezkoen sarbidearen malda murriztu da eta enpresako autobusaren geltokia hurbildu da, erabiltzaileak erosoago egon daitezen”.

Goyenecheko industria-instalazioak GUREAKen berezko teknologiak osatzen dituzten produktuak muntatzen ditu, eta automozioa, energia, Smart Home, mugikortasuna edo osasuna bezalako sektoreetara bideratzen da. Merkatu horien eta GUREAKen industrializatutako produktu multiteknologikoen bilakaerak hainbat faktoreri erantzuten dieten espazio moderno eta eraginkorrak eskatzen ditu, hala nola ingurumenaren, tenperaturaren edo hezetasunaren kontrolari erantzuten diotenak. Eskakizun horiek pertsonen ongizatera egokitzea izan da egindako jarduera guztien helburua.

Inbertsioa, guztira, 5M €-koa izan da, eta 155.000 €-koa ekipamenduan (altzariak eta apalategiak). Gipuzkoako Foru Aldundiak 2,7M € eman dizkio proiektuari, aniztasun funtzionala duten pertsonentzako enplegu-zentro bereziak egokitzeko lankidetzahitzarmen baten baitan.

Bestalde, **Maite Peña, Gizarte Politiketako foru diputatuak azpimarratu du garrantzitsua dela pertsona guztien aukera-berdintasunean aurrera egitea, baita enpleguaren bidez ere.** “Gure ekosisteman, eragile guztiok, modu partekatuan, espazio inklusiboak eskaintzeko lan egiten dugu, pertsona bakoitzak bere gaitasun pertsonalak, sozialak eta lanekoak gara ditzan, arreta pertsonalizatuaren bidez”, diputatuak zehaztu duenez.

GUREAK, gaitasunak landuz

GUREAK taldeak desgaitasuna duten pertsonentzako lan-aukera egonkorrak sortu eta kudeatzen ditu. Bere ibilbide luzean zehar, gizarteratzeko eta laneratzeko enpresa-eredu berria sortu du, Europan erreferente bihurtu dena.

Gaur egun, 6.000 pertsona inguruk osatzen dute taldea, eta horietatik %84k desgaitasunen bat du. Talde sendoa eta dibertsifikatua da, eta batez ere industriaren, zerbitzuen eta marketinaren sektoreetan lan egiten du.